



**Autoa da errege**



# EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko **azken eguna urriaren 30a** izango da:

- UEUK antolaturiko ikastaroak egiteko, EHUK eta HIK HASIk euskaraz antolatzen dituzten uda ikastaroak egiteko eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu izana saritzeko dirulaguntzak.
- Euskaltegian edo barnetegian euskara ikasteko dirulaguntzak (laguntza hauek eskatzeko **azken eguna irailaren 15a** izango da).



ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

**Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak** aurkez ditzakete interesdunek HAZEN,

Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki **Udalaren webguneko Herritarren Atarian.**

**Informazio osagarria** lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (943 744 366, euskara@elgoibar.eus).

# GORBEA

## Berria!

Eguneko menua ematen hasi gara!

**15€ + 1€** Menuko kafea

### Zatoz dastatzera!

@gorbea.eus

Santa Ana, 10 943 288 180



Karta, menu itxiak, ezkontzak, urtebetetze festak, hamaiketakoak, catering-a...

## LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

**CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:**

**Apirilak 13, igandea**

Non eta nola:

• [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) (lan poltsa)

• 943 741 626 / 643 499 169

• [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus)



ELGOIBARKO IZARRA  
Ikastetxearen Telegoia

### ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

### BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmantua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Berezieta ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

### KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera meritua ere baloratuko zaizkie.
- Elkarrizketak: apirilak 28-29
- Hautatuek oinarriko prestakuntzan hartu beharko dute parte: maiatzak 24, 09:30-18:30

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen iritzi eta gutunen ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhua Andonegi. **Kazetariak:** Ainhua Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Ane Astiazaran, Nahia Aizpurua, Ane Kortaberria, Leire Kerexeta, Izaro Etxegibel, Asier Guisasola, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga, Irene Macazaga, Jose Ramon Cabrera, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Paula Heras, Angel Ugarteburu, Andoni Segundo, Angel Mari Tobajas. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Intentziorik gabeko kalteak



**'Ez zuen min egiteko asmorik izango'.  
Zenbatetan erabili dugu aitzakia hori maite dugun norbaiten izen ona auzitan ez jartzeko?'**

1989. urtera arte legezkoa zen haurren esplotazioa eta haurren kontrako zigor fisikoa; zilegizkoa, hezkuntza metodo gisa ulertuta. Ordura arte, senar batek emaztearen kontra zerabilen indarkeria ere zilegia zen haren jarrera edo jokaerak zuzentzeko; emazte ona izan zedin alegia. Beraz, esan genezake garai hartan gizartean bazegoela logika komun bat, eta haur bat edo emakume bat kolpatua ikusiz gero, pentsatuko zutela zerbait egina izango zuela.

Gure artean ere oso ohikoa da zintzotzat dugun pertsona batek kalte egin diola esaten digunari "nahi gabe egingo zuen" edo "ez zuen min egiteko intentziorik izango" erantzutea.

Zenbatetan erabili dugu aitzakia hori maite dugun norbaiten izen ona auzitan ez jartzeko? Eta zenbatetan erabili dugu argumentu berdina gure seme-alabekin? Edo halakotan ulertu nahi izaten dugu bere burua defendatzeko erasotuko zuela, aurretik zerbait jasango zuela? Ez ote gabilta etengabe maila ezberdinetako biolentzia justifikatzen?

Intentzionalitatearen argumentuak justizia eremuan du balioa; egileak bere ekintzen efektuaren kontzientzia baldin badu, ardura osoa egotzi ahal baitzaio eta horren araberako zigorra ezarri. Egilearen motibazioa eta arrazonamendua ulertu nahi izatea, gure enpatia ariketa hori, ondo dago, baina gizatasun hori gizarteratu nahi badugu, maite dugun pertsonari hazteko eta gizaki moduan garatzeko aukera eman nahi badiogu, bigarren pausoa ezinbestekoa da. Kolektiboa norbanakotik erregulatzen da, legeak zigorgarria denaren muga ezartzen du. Gure jokabideek besteengan duten eraginaren kontzientzia garatzea ezinbestekoa da autorregulazioa lantzeko, min egiteko intentzioa egon edo ez, eta hau egiten dakiten subjektuak behar dira gizatasunean oinarrituriko kolektiboak sortzeko.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefona jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

**Ezin aparkatu**

King-Kong zubiaren obra dela-eta, Urazandi auzoan aparkaleku asko kendu dituzte, eta lehen zaila bazen, orain are zailagoa da auzoan aparkatzea. Iluntzetan, ordu batetik aurrera ez da aparkatzeko lekurik egoten, eta ohiko bihurtu da autoak gaizki aparkatuta ikustea. Beste hamaika auto zeuden bezala, nik ere gaizki aparkatu nuen autoa, Herri Eskolako gunean. Banekien ez zegoela ondo, baina gaua zen, eta goizean goiz kenduko nuela pentsatu nuen. Gauetz ez da autobusik ibiltzen, eskola itxita dago eta nire autoak ez zuen bidea oztopatzen, baina hala ere, goizean joan nintzenerako isuna jarrita neukan. Badakit autoa ez zegoela ondo aparkatuta, baina hainbeste aparkaleku kendu dituzten sasoi honetan uste dut udaltzainak es-

kuzabalagoak izan daitezkeela egoera batzuen aurrean.

A.A.

**Oharra**

Aste Santua dela-eta, apirilaren 18an eta 25ean ez dugu BARREN aldizkaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia maiatzaren 2an kaleratuko dugu.

BARREN

Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenetik ostiralderara: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatetik: 11:00 - 13:00

leapoindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**



- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**3HB4131X3 BALAY LABEA**

A+ 

**359 €**



- Funtzio anitza, guztira 7 funtzio
- 7 litro
- Aginte ezkutagarriak
- Garbitzeko sistema: akalisia
- Herdoilgaitza eta kristal beltza

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.





Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Oinezkoek askotan ez daukate ibiltzeko lekurik:**

"Errosario kalea estua da, eta autoek bertan aparkatzen badute, ez dago oinezkoak eta autoak batera ibiltzeko lekurik. Oinezkoak albo batera egin behar izaten dugu sarri, autoei lekua lagatzeko, eta nire us-tez, alderantziz izan beharko litzateke".



### **Kirol instalazioetan erretzeko debekua ez dute errespetatzen:**

"Mintxetako sarreran erretzea debekatua dagoela jartzen du argi eta garbi, baina jende askok ez du debeku hori errespetatzen. Aire

librean dauden aitzakiarekin, dena libre dela uste dute. Ez dugu ahaztu behar helduok gara- la umeen eredu eta ematen dugun irudia zaindu behar dugula. Errespetatu ditzagun arauak, mesedez".



### **Eskerrik asko, Mendaro:**

"Eskerrak eman nahi dizkiegu Mendaroko Udalari eta baita erraldoien konpartsako ardura-dunei, erraldoi txikien erakusketa antolatzeagatik. Era berean, mila esker gure erakusketa ikus- tera etorri diren 485 pertsoneri. Oso gustura egon gara".





## Izan al du eraginik EUSKARALDIA ariketak zure hizkuntza-ohituretan?



**MERTXE ARTETXE**

*"Konturatu gabe askotan gaztelaniaz egiten dut eta amorrua ematen dit"*



**GORKA LUNA**

*"Lehenengo hitza beti euskaraz egiten diet bezeroei"*

**G**ure familian eta inguruan euskaldunak gara, eta nik Ahobizi rola aukeratu izan dut, euskaraz bizi nahi dudalako. Ni horretan saiatzen naiz. Familiako whatsapp taldean ere euskaraz idazten dut, askotan gaizki seguruenik, baina behintzat, euskaraz. Batuarekin eta Elgoibarko hizkerarekin sekulako nahastea edukitzen dut idazterakoan, baina saiatzen naiz beti euskaraz idazten. Umetan ez nuen ondo pasatu hizkuntzarekin. Etxean euskaraz bizi ginen, baina eskolan gaztelaniaz egitera behartuta geunden. Etxera iristean gaztelaniaz egiten banuen, aita haserretu egiten zen, berak euskaraz bizitzea nahi zuelako. Ez zen erraza izan. Gaur egun asko egiten dut euskaraz, baina konturatuta nago ez dudala euskaraz pentsatzen, eta itzulpena egiten dudala. Euskalduna naiz eta euskaraz pentsatu nahi nuke. Etxekoekin eta beste askorekin euskaraz egiten dut, baina nire adineko jende askorekin gaztelaniaz egiteko ohitura daukat, eta hori aldatzea zaila da. Konturatu gabe askotan egiten dut gaztelaniaz, eta sekulako amorrua ematen dit, baina horrela irteten zait. Amarekin ere gaztelaraz egiteko ohitura handia neukan, eta asko egiten nuen berarekin erdaraz. Pena hori geratu zait. Aurten ere hartuko dut parte Euskaraldian eta txapa jantzita irtengo naiz kalera. Facebookeko profileko argazkian ere Ahobizi jarrita daukat aspalditik eta ez dut kenduko.

**O**rain arteko edizio guztietan hartu izan dut parte Euskaraldian eta aurtengorako ere dagoeneko eman dut izena. Ahobizi rola aukeratzen dut beti. Bilbon egiten dut lan denda batean, eta nire lehenengo hitza beti euskaraz egiten diet bezero guztiei. Turista asko etortzen dira, eta hizkuntza asko hitz egin behar izaten ditugu, baina ulertzen didatela ikusten badut, nik euskaraz jarraitzen dut. Bilbok harritu egin nau euskarari dagokionez, eta uste nuena baino gehiago entzuten dut euskara. Dendan ere bezeroek jarrera ona erakusten didate euskaraz egiten dudanean, eta askok eskertu ere egiten dute. Euskaraldian zehar txapa batzuk ere ikusten dira, eta horrek poza ematen dit. Adineko jendea euskaraz egiten saiatzen ikustea polita da. Lagun artean, tamalez ez dugu euskaraz hitz egiten. Kuadrilla handia gara, eta denok ulertzen dugu euskaraz, baina aspalditik daukagu gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura eta normalizatuta daukagu harreman hori. Hori aldatzea oso zaila da; ia ezinezkoa. Eta seguru nago lagun batzuek lanean erabiltzen dutela euskara, baina gure artean ez dugu egiten. Gutxi batzuk badaude beraien artean euskaraz egiten dutenak, baina oso gutxi dira. Euskaraldia hain justu ere horretarako ariketa da, ohiturak aldatzeko, eta nire ustez, garrantzitsua da parte hartzea. Denok bat eginda aurrerapausoak emateko aukera handiagoa dago.



## 2.100 zuhaitz landatuta amaitu du landatze denboraldia Baso Biziak elkarteak

**E**lgoibarko Baso Biziak Elkarteak amaitutzat eman du 2025eko zuhaitz landaketen kanpaina. Iazko azaroan hasi ziren eta martxo erdialdera arte aritu dira hemen bertoko espezie-tako zuhaitzak landatzen. Guztira 2.100 zuhaitz landatu dituzte joan berri den neguan. "Benetan zenbaki ederra! Poliki-poliki, gure bidea egiten dihardugu eta taldekideok balorazio oso positiboa egin dugu", adierazi dute, eta bidelagun izan dituzten guztiei eskerrak eman dizkiete: "Eskerrik asko bazkideei, lurjabeei, landakete-tara animatu zareten lagunei, materiala gerturatzan lagundu diguzuen Manueli eta Gaizkari, Alcorta, Besa eta DanobatGroup enpresei, Caja Rural de Navarrari, Elgoibarko Udalari, Bellota Group enpresari, Lurgaia Fundazioari, Atxutxiamaikari, Morkaikori eta beste hainbati". Neguan hasiko dituzte berriro landatze lanak.



### Marearteko fauna ezagutzeko irteera egin dute 'Gure Natura Ezagutz' egitasmoaren barruan



Atxutxiamaikak, Baso Biziak eta Morkaikok elkarlanean sustatzen duten *Gure Natura Ezagutz* egitasmoaren barruan marearteko fauna ezagutzeko irteera egin zuten domekan, Zumaiara. 50 bat lagun batu ziren, eta beste 50 bat geratu ziren itxarote-zerrendan. Goizean Algorri interpretazio zentroko arduradunen azalpenak entzun zituzten hango fauna eta Flyshari buruz, eta

gero, txangoan parte hartu zuten Ibabe Urtzelai eta Kizkitza Agirre geologoen bitartez, Zumaia inguruko geologia ezagutu zuten.

Hurrengo ekimena maiatzaren 18an egingo dute, Lizagarreko Asier Lizarralderen laguntzarekin. Xaguzarrentzako kabiak eta intsektuentzako hotelak prestatuko dituzte, eta ekainaren 1ean Sargoaten ipiniko dituzte.

## Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea indartzeko plana hasi du Mendaroko Udalak

**H**erriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreak indartzeko eta epe ertain eta luzera haien lehiakortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko, plan estrategikoa jarri du martxan Mendaroko Udalak, Dendartean elkartearen laguntzarekin. Lehenengo fasean, bi inkesta egingo dituzte Udaletik informazioa biltzeko: bata, sektore hauetako profesionalentzat izango da eta bestea herritarrentzat. Herritarrek modu digitalean bete ahal izango dute inkesta Mendaroko Udalaren webgunean sartuta. Profesionalai email

bidez bidaliko diete inkesta, baina eskura ere emango diete. Kaleko inkestak ere egingo dituzte, herritarren ikuspegia osatzeko eta digitalki parte hartzerik ez dutenen iritzia biltzeko. Bestetik, udalerriko ezaugarri urbanistikoak aztertuko dituzte, merkataritzarekin, ostalaritzarekin eta zerbitzuekin duten loturaren ikuspegitik. Inkestetatik eta azterketa urbanistikotik jasotako informazioa oinarri hartuta, bigarren fasean, egoera hobetzeko eta identifikatutako beharrei erantzuteko ekintza-plan zehatza diseinatuko dute.

### Ekain Ibagurenekin solasaldia antolatu du In Leike datorren asterako



Mendaroko In Leike euskara elkarteak Ekain Ibaguren pailazo eta malabaristarekin solasaldia antolatu du apirilaren 9rako, *Ereduegarri* proiektuaren barruan (udaletxean, 18:30ean). Mendaron euskararen erabilerak izandako apaltzea ikusita, herriko haur eta nerabeei erreferente euskaldunak gerturatzeko Udalaren laguntzarekin sortutako egitasmoa da. Aitziber Garmendia aktorea izan zen lehenengo protagonista, eta Sua Enparantza aktore eta musikaria ekarri zuten ondoren. Bi saio haiek izan zuten arrakasta ikusita, aurrera egitea erabaki dute aurten ere.

### Txirristaka Bertsopaper lehiaketa antolatu dute Mendaron

Txirristaka Bertsopaper Saria antolatu dute Mendaroko Udalak eta In Leike kultur elkarteak, elkarlanean. Duela 50 urte antolatu zuen estreinakoz sariketa hau Guruzpe Kultur Elkarteak Mendaron, baina bi urtez egin ostean, laga zioten antolatzeari, eta iaz, berreskuratu zuten herritar talde batek, In Leike kultur elkarteak eta Udalak, *Txirristaka* kultur-programaren baitan. Iaz bezala, aurten ere hiru kategoria bereiztuko dituzte, A, B, eta C, eta maiatzaren 30a arteko epea eman dute lanak aurkezteko. Aurten, gaia librea izango da.

A kategoria 2011n edo ondoren jaiotakoentzat izango da, eta Debabarrenekoek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Gutxienez bi ber-

tso eta gehienez lau osatu beharko dituzte. B kategorian, berriz, 2007 eta 2010. urteen artean jaiotakoek (biak barne) parte hartu ahal izango dute, eta gutxienez lau bertso eta gehienez zortzi sortu beharko dituzte. C kategorian, azkenik, 2006an eta lehenago jaiotakoek parte hartuko dute eta elkarrekin nolabaiteko batasuna duten 8-12 bertso osatu beharko dituzte.

B eta C sailetan Euskal Herri osoko bertsozaileek parte hartu ahal izango dute. Kategoria bakoitzeko bi sari banatuko dituzte: 100 eta 50 euroko kultura bono bi A kategorian; 200 eta 150 euroko bi sari B kategorian; eta 1.000 eta 500 euroko beste bi C kategorian. Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: [mendaro.eus](http://mendaro.eus).



## Bost ikastaro emango dituzte Aldundiaren 'Treba Nerabeak' egitasmoaren barruan

**G**ipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak *Treba Nerabeak* prestakuntza-programa jarri du abian, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek beren garapen pertsonalerako funtsezko tresnak gara ditzaten. Programak lau gai-multzoko handi jorratuko ditu: ongizate emozionala, begirada kritikoa, sexualitatea eta bizitzarako trebetasunak, eta bi fasetan garatuko da: lehena, udaberrian, bost ikastarorekin, eta bestea, udazkenean. Soraluze, Deba eta Elgoibar izango dira ekimen hau hartuko duten lehen udalerrak apirila eta maiatza bitartean, sexualitateari, bizitzarako tresnei eta ongizate emozionalari buruzko ikastaroekin. Udazkenean, berriz, Mutriku eta Eibar batuko dira programara, begirada kritikoa eta ongizate emozionala jorratuz, hurrenez hurren. [gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/treba/nerabeak/2024-2025/agenda/debabarrena](http://gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/treba/nerabeak/2024-2025/agenda/debabarrena) loturan aurkituko duzue agenda osoa.



Izen-emateak udalen eta gaztelekuen bidez kudeatzen ditute; beraz, prozedurak ez dira berdinak herri guztietan. Xehetasun guztiak [gipuzkoangazte.eus](http://gipuzkoangazte.eus) webgunean daude eskuragarri.

### Pentsio duinen aldeko manifestazioa egingo dute bihar, Eibarren

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak deituta, manifestazioa egingo dute bihar Eibarren, soldata eta pentsio duinen alde. Elgoibarko Gaurgeroa eta Duintasuna erakundeek bat egin dute deialdiarekin, eta herritarrek animatu

nahi dituzte protesta ekitaldian parte hartzera. 12:00etan izango da, Untzaga plazan. Bestalde, apirilaren 7an, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, 1.080ko gutxieneko pentsioa aldarrikatzeko.

### Telefonoen erabilerarekin kezkatuta dauden gurasoek formazio tailerra egin dute



Elgoibarko Amatau Mobila taldeak antolatuta sakelako telefonoen erabilerari buruzko tailerra egin zuten joan zen barikuan Aita Agirreko areto nagusian, eta berriz ere kezka dagoela agerian geratu zen. 70 bat lagun batu ziren, eta talde

txikitan jardun zuten lanean. Amatau Mobila taldekoek aurkezpena egin zuten lehenik, eta ondoren umorezko bakarrizketa batekin sartu ziren lanera. Saioaren helburua seme-alabei sakelako telefonoa emateko adina atzeratzea izan zen.

## Greziako errefuxiatuei jaten emateko 12.000 kilotik gora janari bildu dituzte Zaporeak erronkan



Lesboseko (Grezia) kanpalekuko errefuxiatuei jaten emateko bilketa egin zuten joan zen astean Debabarrenean *Zaporeak* egitasmoaren barruan, eta 12.000 kilo elikagai baino gehiago batu dituzte. Elgoibarren garbantzuko pedrosillanoak batzen aritu ziren eta 972 kilo batu zituzten guztira, iazko kopurua bikoiztu ia (575 kilo jaso zituzten 2024an). Hala ere, egitasmoaren sustatzaileek aurtengorako jarritako helburutik urrun geratu dira. Iaz 25.000 kilo elikagai batu ostean, 50.000 kilo batzeko erronka jarri zuten aurtengo ediziorako. Jarritako kopuruetara heldu ez arren, balantze positiboa egin dute, eta pozik agertu dira lortutakoarekin. Izan ere,

12 tona janari batzeaz gainera, 12.000 euro jaso dituzte errifak saltzetik eta Tuper Solidariori esker. Zaporeak erakundeak eskerrak eman dizkie ekimenarekin bat egin eta laguntza eman duten herritar, erakunde eta enpresa guztiei eta, bereziki, ekimena aurrera ateratzen lagundu duten 150 boluntarioei.

Errifaren zozketako saridunen berri ere eman dute: Begoña P. Aizpun (4307), Esteban Oroz (4510), Leire Kareaga (5880), Mauri Martin (3098), Elisabet Eguren (0679), Angel De La torre (2273), Esther Galarza (5528), Maite Zanguitu (2277), Marina Barrena (3290) eta Yolanda Capelo (5116).


## Ahaztuko ez duen istripua izan du Ignacio Diaz txirrinduzale mendarorak



Mendaro Txirrindulari Taldeko zikloturista da Ignacio Diaz 62 urteko txirrinduzalea, eta Lekeitiora joan-etorria egiten ari zela istripua izan zuen joan zen barikuan. Milloki mendate gainera iristeko kilometro eta erdi falta zitzaionean, mendatean behera zetorren apeetarako kamioi batekin topo egin zuen. Kamioiak karga galdu zuen bihurtu batean, eskuineko babesak apurtzean. Hainbat enbor errepidera erori ziren, eta Diazek bere azkena zela pentsatu bazuen ere, oinak pedaletatik askatu eta enborren gainera salto egitea lortu zuen. Zauriak izan zituen, baina ez zuten ospitalera eraman beharrik izan.



# AUTOAK AGINTZEN DU



**Mugikortasunari buruzko txostena argitaratu du Saretzenek, EITBk eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak elkarlanean gauzatzen duten proiektuak, eta ondorioa argia da: trantsizio berderako bideak grisaztatzen jarraitzen duela. Hau da, autoa dela, oraindik orain, garraio biderik erabiliena.**

 Saretzen

Egunero milioika joan-etorri egiten dira, eta kopurua hazten ari da gainera, gero eta gehiago mugitzen garelako. Hala erakusten dute Eusko Jaurlaritzaren azken Mugikortasun Inkestako datuek (2021). 6,5 milioi desplazamendu gertatzen dira astebarruan egunero-egunero Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian; 1.000 biztanleko, 172 bidaia egunero. Hiri eta eskualde guztiak ez daude, baina, berdin diseinatuta, eta horrek, hiri-antolaketak, garraio publikoaren erabilgarritasunak eta ibilgailu pribatuen nagusitasunak baldintzaten dituzte gure mugikortasun-ohiturak. Nolanahi ere, autoa da garraio bideetan errege Hego Euskal Herriko eguneroko joan-etorrietan, eta 2007tik autoen salmenta-kopuruan gorabeherak izan badira ere, 2023tik hona matrikulazioek etengabe egin dute gora Hego Euskal Herri osoan (10 ibilgailutik zazpi autoak dira); azkeneko urtean, %5,6 EAEn eta %2,1 Nafarroan. Gure eskualdera etorruta, 2023an, 43.940 ibilgailuko parkea genuen, 2019an baino 381 ibilgailu pribatu gehiagorekin: Elgoibarren, 7.101 (-10) eta Mendaron, 1.221 (+55). Bada beste datu bat joera bat erakuts dezakeena: eskualdeko herri handietan (Eibar, Ermua, Elgoibar), txikitu egin da

ibilgailu-parkea lau urtean, pittin bat bada ere, eta, aldiz, txikietan, oro har, handitu, hurrenkera honetan: Deban (+234), Mutrikun (+271), Mallabian (+103) eta Mendaron (+55).

Datuak argiak dira, eta beraz, erronka handia dugu trantsizio berderako bidean. Hala uste du Ander Gortazar arkitekto eta EHUKo Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakasleak, Mugikortasunari buruz Saretzenek argitaratu berri duen txosteneko datuei begira jarrita. Mugikortasuna eta hirigintza ia gauza bera direla nabarmendu du Gortazarrek; bata bestea baldintzaten duela, eta alderantziz. Haren esanetan, dispersio geografikoa, zaharkitutako ohiturak eta eredu jasangarriaren premia eta eguneroko joan-etorriak uztartzeko modua topatzea da gaur Euskal Herriko erronka nagusietako bat.

## MUGIKORTASUNAREN DATU OROKORRAK

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban, desplazamendu ohikoena oinez egiten da, norberaren udalerraren barruan; oro har, eguneroko joan-etorrien %45 oinez egiten dira, eta zenbateko hori are handiagoa da emakumeen (%51) eta 65 urtetik gorakoen artean (%72). Bestalde, auto pribatua da nagusi lan

## Debabarreneko ibilgailu-parkea 2023an eta 2019arekiko desberdintasuna

	Ziklotorrak		Motozikletak		Turismoak		Furgonetak		Kamioiak		GUZTIRA	
	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.
<b>Deba</b>	68	3	236	34	2.831	211	286	27	351	-57	<b>3.913</b>	<b>234</b>
<b>Eibar</b>	380	-36	1.256	141	11.701	-264	780	18	803	-93	<b>15.342</b>	<b>-187</b>
<b>Elgoibar</b>	138	-16	454	49	5.287	-24	453	30	502	-32	<b>7.101</b>	<b>-10</b>
<b>Ermua</b>	244	-18	651	39	6.880	-56	341	52	537	-74	<b>8.831</b>	<b>-20</b>
<b>Mallabia</b>	27	-1	89	16	823	37	153	30	206	-8	<b>1.391</b>	<b>103</b>
<b>Mendaro</b>	18	-2	88	22	918	12	67	-3	68	4	<b>1.221</b>	<b>55</b>
<b>Mutriku</b>	129	8	330	97	2.584	136	183	26	239	-6	<b>3.577</b>	<b>271</b>
<b>Soraluze</b>	81	-5	142	16	1.929	-81	157	5	160	-35	<b>2.564</b>	<b>-65</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.085</b>	<b>-67</b>	<b>3.246</b>	<b>414</b>	<b>32.953</b>	<b>-29</b>	<b>2.420</b>	<b>185</b>	<b>2.866</b>	<b>-301</b>	<b>43.940</b>	<b>381</b>

ITURRIA: SARETZEN

egiteko adinean daudenen artean (%33): 20 eta 64 urte bitartekoen ia erdiek aukeratzen dute bere ibilgailua aukera nagusi gisa eguneroko joan-etorriak egiteko. Garraio publikoaren kuota handiena, berriz, gazteenei dagokie (%23).

Mugitzeko motibazio nagusien artean, berriz, esan behar da lanagatik (%29,9) edo ikaske-tengatik (%12) egiten dela joan-etorrien kopuru handiena (%42). Erosketa edo gestioetarako egiten dira desplazamenduen %29 eta %22, aisialdiagatik. Arlo horretan ere eragina du generoak: gizonak gehiago desplazatzen dira lanagatik (% 32), eta emakumeak, berriz, batez ere kudea- ketak egiteko (% 32,3). Soldatapeko lanarekin dago lotuta mugikortasunaren arazo nagusia beraz, eta zuzenean du eragina horrek hiri-di- seinuarekin, gaur enpresa asko herriguneetatik kanpora eramanda daudelako eta orain herriak ez direlako garai batean bezain dibertsoak, lante- giak ez ezik denda handiak ere herrigunetik kan- pora jarri direlako. Eta horrek, eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izateak, sortzen ditu arazoak, garraio publikoa hobetuta konpondu ahal izango direnak zenbaitetan, baina ez beti; "ez, bederen, gure herri eta hiriak nola antolatuta dauden birplanteatu ezean".

### OINEZKO MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Donostialdean biltzen da Gipuzkoako mugikortasunaren %53, eta Araban, Gasteizen baka- rrik egiten dira eskualdeko joan-etorrien %96 eta Araba osokoen %82. Datu horiek biztanleriaren

banaketari eta zerbitzu-jardueren kontzentra- zioari erantzuten diote, eta lotura zuzena dute garraio publikoaren eskaintzarekin eta garraio publikoan egiten diren bidaia kopuruarekin. Gi- puzkoan, biztanlegoa banatuago dago eta mugikortasun dibertsifikatuagoa du. Egutero, beraz, 312 bidaia egiten dira garraio publikoan 1.000 biztanleko. Donostian bakarrik %36 eta Gipuz- koako herrien artean %64, eta arazo handiak daude eskualde arteko loturetan. Eta horrek be- rarekin dakar ibilgailu pribatuarekiko mendekota- suna [Ibilgailu partikularretan, hamarretik zazpi autoak dira].

### AUTOA, JAUN ETA JABE

Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan erabiltzen da auto pribatua gehien (% 44) [Ara- ban, % 43 eta Bizkaian % 33]. Autoa da garraio- biderik erabiliena, eta gero eta gehiago daude gainera. Debabarrena ez da salbuespena. 2019an baino 381 ibilgailu pribatu gehiago zeuden matri- kulatuta 2023an, gehienak autoak. Elgoibarren 11.518 bizilagunen artean 9.477 dira 18 urtetik gorakoak, hau da, gidabaimena izan dezakete- nak eta 7.101 ibilgailu pribatu daude, horietatik 5.287 turismoak. Mendaron, berriz, 2.025 herri- tarretatik 1.604 dira 18 urtez gorakoak eta 1.221 ibilgailu daude; horietatik 918, autoak. Eta, jaki- na, aparkatzea arazo bihurtu da herri guztietan, eta aldi berean oinezkoek lekua jan diete autoek denboraren %95 geldituz egiten dutelako, espazio publikoa okupatzen askotan.

## ANDER GORTAZAR

Arkitektoa eta EHUko irakaslea

✍ Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria-Saretzen

"Mugikortasunak hirigintza baldintzatzen du eta alderantziz". Hala dio Ander Gortazar arkitektoak (Donostia, 1985). EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakaslea da eta 2021ean, Elhuyar Sorkuntza Beka Saria jaso zuen, '15 minutuko hiria, 45 minutuko lurraldea. Euskal kartografia garaikideak' izeneko lanarengatik.



## *"Eztabaida serioa behar da espazio publikoaren erabileraren inguruan"*

### **Hitz egin al daiteke mugikortasun-hirigintza eredu on eta txarrez?**

Badira eredu onak eta txarrak. Askotan aipatzen da gure helburua ez dela horrenbeste mugitzea, baizik eta, zerbitzu batzuetara iristea; horrenbestez, mugikortasunik onena batzuetan gertatzen ez dena da. Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izanez gero, ez da positiboa; gehiegi mugitu behar horretan hasten gara ondorio negatiboak pairatzen.

### **Halabeharrez mugitu behar dira batzuk, baina orografia, biztanleriaren banaketa... hain dira ezberdinak leku batetik bestera gurean...**

Lurralde antolakuntzak erabat baldintzatzen du mugikortasuna. Araban, adibidez, Gasteizek biztanleriaren %90 inguru biltzen du, eta, beraz, alde horretatik, errazagoa da mugikortasuna hiri baten parametroetatik ulertzea; aldiz, Gipuzkoara joz gero, biztanleria sakabanatuago dago, herri txikiagoetan. Guk ikusten duguna da gure eguneroko mugimenduak -lanarekin lotuta bereziki, baina ez bakarrik- ez direla soilik herri barrukoak, baizik eta herrien artekoak. Eta herrien artekoak bihurtzen direnean distantzia batzuk daude, fluxu batzuk, eta horiei modu jasangarrian erantzutea oso zaila da.

### **Nolakoak dira fluxu horiek tokiaren arabera?**

Bai Araban, esaterako, gehienbat Gasteizera eta Gasteiztik, eta Gasteiz barruan. Aldiz, Gipuzkoan, bailara barruan dezente mugitzen gara, baina baita batetik bestera ere, eta ez soilik herrietatik herrietara, baizik eta herrietatik herrien inguruan dauden bestelako industrialdeetara, supermerkatuetara... Horrelako beste asentamentu batzuk daude, herritik kanpora eta mugikortasunaren dispertsio horrek asko zailtzen du hori dena modu erraz batean antolatzea.

### **Jaurlaritzaren mugikortasun inkestaren arabera, emakumeak gizonezkoak baino gehiago mugitzen dira oinez eta garraio publikoan, eta gizonezkoak emakumeak baino gehiago ibilgailu pribatuan.**

Generoak asko baldintzatzen du mugikortasuna, eta hori literatura zientifiko guztiak esango du ia toki guztietan. Ikusten ari garena da, baina, gizonen eta emakumeen arteko arrakala txikiagotzen ari dela, eta ez bereziki gizonen kote gutxiago hartzen dutelako -apaltze txiki bat nabaritzen da-, baizik eta emakumeen mugikortasun ohiturak gizonen ohituretara hurbiltzen ari direlako belaunaldi berrietan. Arrakala nabaritzen da 50 urtetik gorakoan artean, baina ez horrenbeste 40 urtetik beherakoetan. Egia da emakumeek historikoki ere pisu gehiago izan dutela lan



erreproduktiboan –haurrak, gurasoak zaindu, erosketak egin...–, eta horrek ere beste mugikortasun ohitura batzuk dakartzala.

### **Adineko pertsonak gehiago ibiltzen dira oinez. Hiriak horretarako prestatuta al daude?**

Nik esango nuke geroz eta gehiago baietz. Hiri barruan mugitzea geroz eta errazagoa da, eta orokorrean, hiri kontsolidatueta, oinez ibiltzea erraza da. Nire ustez, arazo nagusia egun soldatapeko lanarekin dago lotuta. Soldatapeko lan asko hiriaren kanpoaldera eraman ditugu azken urteetan, lurra merkeagoa delako, adibidez. Baina horrek ondorio batzuk izan ditu, eta gastu batzuk externalizatu dira mugikortasunean. Enpresari hobeto irtetzen zaio urrutiko joatea, baina langileari, ez. Bada, goizetan eta arratsaldeetan ikusten ditugun pilaketa asko horren ondorio dira, ez ditugulako lortu gure hiriak erabileraz ezberdinekoak egitea. Eta gauza bera gertatzen da herrietan ere. Lehen herriak askoz ere dibertsoagoak ziren: industria kutsatzailea zenean, hiri barruan zegoen, eta orain, gure kutsatzaileak ez direnean, hiritik kanpo jartzen ditugu.

### **Garraio publikoa sustatzea izan al daiteke horri aurre egiteko modu bat?**

Bai, erabat. Garraio publikoak izan behar du mugikortasunaren bizkar hezurra, baina garraio publikoak ondo funtziona dezan behar du maiztasuna, pertsona fluxu bat... Eta mugikortasun beharrak izugarri dispersatu baditugu, oso zaila da egoera horri garraio publikoaren bidez erantzutea, ez bada garraio publikoa bera pentsatzeko modua ere apur bat aldatzen dugula.

### **Nola baloratzen duzu garraio publikoaren sistema?**

Ez da galdera erraza. Donostian adibidez esango nuke nahi duenak baduela aukera, baina egia da eskalaz handitzen garenean eta lurraldean sartzen garenean fedea eta militantzia behar direla garraio publikoari eusteko. Aldirietako trenarekin gertatu dena ikusi besterik ez dago. Eta nik uste dut hor dugula erronka: garraio publikoa ere eraldatu daiteke, eta horretan jarri beharko ginatke.

### **Eraldatzeko hainbat puntu aipatu dituzu; zeintzuk izango lirake garrantzitsuenak?**

Intermodalitatearen figuran dago puntu ga-

*"Egia da eskalaz handitzen garenean eta lurraldean (Gipuzkoan) sartzen garenean fedea eta militantzia behar direla garraio publikoari eusteko"*

arrantzitsuenetako bat, transbordoarenean, eta hori gurea bezalako lurralde nolabait polizentriko batean behar-beharrezkoa da. Gainera, mugikortasun lege berriek, Europatik datozenek eta EAEn onartu berri denak, hori azpimarratzen du. Pertsona bati galdetuz gero ea transbordo bat egin nahi duen bidaia bat egiteko, ezetz esango dizu, baina transbordorik gabe edozein lekutatik edozein lekutara joatea azkar eta maiztasun handiarekin ezinbestekoa da. Horrenbestez, lortu behar duguna da intermodalitate puntu horiek edo transbordo aukera horiek biderkatzea, eroso egitea, aurreikusteko modukoak izatea, eta hori guztia nolabait erakargarri egitea. Horrek garraio publikoaren sarea dezente birpentsatzea dakar.

### **Ematen al dira horretan pausoak?**

Oso poliki. Eskumen kontuak daude. Garraio publiko batzuk hiriek antolatzen dituzte, beste batzuk Eusko Jaurlaritzak, edo lurralde historikoek, eta, ondorioz, bakoitzak bere inertzia eta bere mesfidantzak ditu, eta oso zaila da bata besteari terreno pixka bat jaten uztea. Teorian azkarrago goaz praktikan baino.

### **Lurraldebusek inoiz baino erabiltzaile gehiago izan zituen ia; gorakada egon zen, eta eskualde guztietan. Zerbait adierazgarria al da hori?**

Uste dut ari garela pixkanaka kontzientziazten, baina azken urteetako garraio publikoak izan duen igoera uste dut estuki lotuta dagoela merkeagoa izatearekin. Prezioa berriro ere aurreratu itzultzen bada, hor gertatuko dena ez dago batere garbi.

### **Gazteak dira garraio publiko gehien erabiltzen dutenak. Hori halaberrez da ala badago pentsaera aldaketa bat?**

Azkeneko urteetan gazteek lehen baino beranduago ateratzen dute gidabaimena, baina atera egiten dute eta momentu batetik aurrera kotxera pasatzen dira. Egia da momentu horretan alter-

natiba bat eskainiz gero adin tarte zehatz horri, agian kotxea hartzeko unea dezente atzeratu daitekeela, eta, kasu batzuetan, hartu ere ez dutela egingo. Baina horrek hirietan funtzionatu dezake errazago, lurralde mailan beste arazo batzuk baitaude, lehenago konpondu behar direnak.

**Ia bi milioi ibilgailu daude Hego Euskal Herrian, eta %70 inguru turismoak dira. Kontuan edukitzen badugu gure biztanleria hiru milioira ere ez dela ailegatzen, beharrezkoak dira hainbeste ibilgailu?**

Kotxea, eta hau gutxitan esaten da, ez da makina batere eraginkorra. Kotxe batek bere denboraren %95 aparkatuta pasatzen du, bi tonako tramankulu bat behar dugu 80 kiloko pertsona bat mugitzeko... Efizientzia energetikoaren aldetik, ez da jasagarria. Orain asko hitz egiten ari da kotxea jabetzan dugun objektu bat izatetik erabiltzen dugun objektu bat izatera pasatu beharko litzatekeen ideiaren inguruan. Eta horrek igual gure kotxe kopurua %70 jaitsi dezake. Beste kontu bat da hori nola egiten den, baina oso ideia indartsua da.

**Zein da konponbidea aparkaleku beharra izan arren aparkalekuak egiteko tokirik ez duen herri edo hiri baten kasuan?**

Berez, aparkalekuaren lehenengo arazoa edo konpondu beharrekoa kudeaketarena da. Herri guztietako alkateek esan izan didate kazkabarra iragartzen dutenean, edo izotza, bat-batean kalean tokia izaten dela gauzez aparkatzeko. Horrek esan nahi du jende askok baduela garajea etxe azpian, baina ez duela erabiltzen kalean uztea erosoagoa delako. Hor badago kudeaketa arazo bat, eta, kudeaketa horren gaineko literatura pixka bat irakurrita, sartzen den osagai nagusia prezioarena da. Eta hau ez da batere herrikoia era honetan esatea, baina aparkatzeak espazio bat okupatzen du elementu pribatibo batentzat, eta, alde horretatik, logikoa da ordaintzea, beste gauza askorengatik ordaintzen dugun eran. Horrek gauzak berrantolatzen lagundu dezake.

*"Kotxe batek denboraren %95 aparkatuta pasatzen du, bi tonako tramankulua da 80 kiloko pertsona mugitzeko... ez da jasagarria"*

**Elhuyar Sorkuntza Beka Saria jaso zenuen 2021ean, '15 minutuko hiria, 45 minutuko lurraldea. Euskal kartografia garaikideak' izeneko lanarengatik. Zer dira hamabost minutuko hiriak?**

Hamabost minutuko hiria, berez, Parisetik etorri zen ideia bat izan zen. Carlos Moreno aholkulari [urbanistikoak] eta Anne Hidalgo alkateak sustatu zuten ideia bat da, eta esan nahi du hiritar moduan, oinez edo bizikletaz, hamabost minutuan iritsi beharko ginatkeela gure behar nagusiak asetzera. Ideia oso ona iruditzen zait, baina oso argi dut Parisetik datorrela, eta, horrenbestez, hango testuinguruari erantzuten diola.

Gure herrietan eta hirietan hamabost minutuko erradio horretan gauza asko egin ditzakegu, uste duguna baino askoz gehiago, eta askotan ez ditugu egiten, baina badira beste behar batzuk asetzen oso zailak direnak. Eta lehenengo soldatapeko lana da. Gure lurraldea ezagututa eta gure idiosinkrasia, gure herriari diogun atxikimendu hori, oso zaila da bizi zaren toki horretan bertan lana topatu ahal izatea nahi duzun horretan. Hemen behar guztiei ez zaie hamabost minututan erantzuten. Marina Garcés filosofoak badu asko gustatzen zaidan esaldi bat: gure gertutasuna ez dela soilik geografikoa; baditugula gertutasun batzuk gertu ez ditugunak. Horrek distantzia bat eskatzen du, eta distantzia horiek nolabait ibili behar dira. Galdera da nola.

**Nola?**

Pixkanaka. Nik uste dut txip aldaketa bat beharrezkoa dela bakoitzarengan, baina egia da kasu batzuetan alternatibak ere falta zaizkigula, eta alternatibak bilatzeko ezin ditugula beti gauzak lehen egiten genituen eran egin. Adibidez, garraio publikoari dagokionez, oso argi dut birpentsatu egin behar dugula diru horrekin eta gehiagorekin zer egin daitekeen hobeto aprobeztatzeko, eta hor da lehen aipatutako intermodalitatearen kontua. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, esaterako, bagabiltza aztertzen hori. Horrez gain, eztabaida serio bat behar da espazioaren erabileraren inguruan, bai hirietan, bai herrietan: oso barneratuta dugu, baina kotxeek espazio publikoan duten nagusitasuna metro koadrotan izugarria da, eta hori ezbaian jartzen hasten garen momentuan gauza asko etor daitezke atzetik.

## ION ZUBIAURRE

Elgoibarko Hirigintza zinegotzia

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

EITBk eta Tokikomek sinatutako lankidetzak-akordioaren emaitza da Saretzen, eta proiektu horren baitan mugikortasunari buruzko txostena argitaratu berri dute. Txostenean bildutako datuak eta gogoetak gurera ekartzeko, Elgoibarko Hirigintza zinegotzi Ion Zubiaurre Ros elkarrizketatuko dugu (Elgoibar, 1981) . Elgoibarren, 5.287 auto daude matrikulatuta eta horrek hiri-antolamenduan sorzen dituen arazoez eta kezkez galdetu diogu Zubiaurreri. Idatziz erantzun ditu hark galderak.

*“Elgoibar, herria txikia izanik, bost minutuko tartean aparkatzea ohikoa da”*



**Elgoibarren 5.287 auto daude. Zer pisu daukate Elgoibarren oinezkoek eta zelakoa autoek? Hiri antolamenduan zein lehentasun ematen zaio bati eta besteari?**

Kopuru hori kontuan hartzen badugu, elgoibartarrentzat kotxe pribatuak duen garrantzia agerikoa da. Aldiz, gizarteak, orokorrean, gero eta oinezko espazio gehiago eta egokiagoak eskatzen ditu eta beraz, horri eman behar zaion garrantzia argia da. Eta bide horretatik goaz. Egia da Elgoibarko herria hirigintza aldetik oso kontsolidatua dagoela. Beraz, aldaketak gehienetan puntualak izango direla aurreikusten dugu, dagoena pixkanaka behar berrietara eraldatzen joateko.

Elgoibarko orografiak, herriaren kontsolidazio mailak, kotxe pribatuaren erabilerak eta oinezko espazioen beharrak espazio txikian eman beharreko oreka ariketa bat eskatzen duela uste dut.

**Aparkatzea arazo bilakatu da herrian. Ba al daukate aurreikusita arazo horrentzako irtenbiderik?**

Gure Legealdi Planean aparkaleku gehiago sortuko genituela adierazi genuen eta horrela egingo dugu. Errezabal egoitza burutzean 75 aparkaleku berri sortuko dira; Altzolan Basque Water enpresarekin akordioan, aparkaleku berriak sortu dira; Urazandin, auzotarren erkidego bateko jabeekin harremanetan gaude aparkaleku gehiago eskaini ahal izateko auzotarrei; herriko beste gune batzuetan ere aztertzen ari gara aparkaleku eskaintza berriak sortzeko. Aipatu baita ere Santa Ana kale bukaerako aparkalekua eta ingurua atondu ditugula, eta modu horretan aparkatzeko gunea txukundu eta ingurua ere asko hobetu da.

Gai honekiko herritarrek duten kezka jabetzen gara eta badihardugu hobetzeko neurriak hartzen. Nahiko nuke galdera hau aprobetxatu herritarrei ditugun ohituren inguruan hausnarke-ta egin dezaten eskatzeko. Helmugatzat dugun gunearen ondoan aparkatzea nahi izaten dugu



askotan. Eta lortzen ez dugunean, aparkaleku arazoa dagoela ondorioztatzen dugu segituan. Elgoibar herri txikia izanik, 5 minutuko tartean aparkalekua topatzea ohikoa dela esango nuke.

### **OTA-TAO sistema indartu duzue herrian. Zein da herrigunean OTA sistema ezartzearen arrazoia?**

Legealdi Planarekin jarraituz, herri bizia izatea da ardatz nagusietako bat. Besteak beste, herri bizia izateak herri erdigunea dinamikoa izatea eskatzen du. Uste dut erdigunean denbora luzerako aparkatu ahal izango luketen kotxeen gune izatea ez dela ona herriarentzat. Beraz, OTA sistema, ordutegi konkretu baten barruan, erdigunean kotxeak denbora luzez ez egoteko sortu zen. Hala, tokiko merkataritza dinamizatzen da.

OTA sistema egokia dugula uste dut. Doakoa, eta behar ezberdinei erantzuten diena, denbora tarte ezberdinak baimenduz.

### **OTA-TAO sistemaren ondorioz herriguneko aparkalekuak hutsik egoten dira egunean zehar eta auzoak beteta daude. OTA sistemaren helburua zein da?**

Beste era batera esanda, herrigunera pasiazteraz, erosketak egitera, enkarguak egitera edo taberna eta jatetxeetara datorrenak erdigunean aparkatzeko aukera izaten du, eta luzerako aparkalekua behar duen horrek kotxea erdigunetik pixkat urrutiago aparkatu behar izaten du. Baina aurretik esan bezala, bigarren horiek askotan ez dute 5 minutu baino gehiagoko bidea egin beharrik izaten erdigunera heltzeko.

### **OTA-TAO sistema honek ez al du jendea bultzatzen erosketak autoz egitera? Aldiz, Elgoibarrera lanera datozenek ez dute herrian aparkatzeko tokirik...**

Gauza bat da bultzatzea, eta beste gauza oso ezberdina da aukera ematea. Adibidez, Elgoibarko auzoetatik erdigunera kotxez etortzea nahi edo behar duen horri tokiko komertzio eta ostalaritzan kontsumitzeko aukera ematen zaio. Erdigunea epe luzerako aparkatutako kotxez beteta egongo balitz, horrek bai bultzatuko luke auzotarra komertzio handietara joatea eta tokiko komertzioetara ez hurbiltzea.

Guk tokiko komertzio eta ostalariak bultzatu eta sustatu nahi ditugu eta OTA sistema, besteak beste, hortara bideratuta dago. Lanera datozenei buruz, OTA sistemari ez dauden guneetan aparkatu ahal izateaz gain, esan, orain egin den

## *"Nahiko nuke aprobetxatu herritarrei ditugun ohituren inguruan hausnarketa egin dezaten eskatzeko"*

moldaketarekin, Sigma eta Guass-eko aparkalekuetan denbora luzez egon zaitezkeela; adibidez, goizeko zortziretan aparkatuta, arratsaldeko laurak arte egon daitezkeela kotxea aparkatuta; hau da, 8 orduko lanaldi osoan. (OTako goizeko ordutegia 09:00etatik 13:00etara artekoa da eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara).

Bukatzeko esan behar dut sistema egokia dela uste arren, seguru gaudela xehetasunak hobetu daitezkeela eta zabalik gaudela, nola ez, hobekuntzak egiten jarraitzeko.

### **Oinezkoentzako soilik diren gune nahikoa daudela uste duzu Elgoibarren?**

Ez. Oinezkoek leku propio gehiago izatea behar genuke. Uste dut baieztapen horretan denok egon gaitetzkeela ados. Orain, leku propio hori non eta nola kudeatzea, hor dago gakoa.

Elgoibarrek badiu ezaugarri konkretu batzuk. Bailara sakon batean egoteak eta mendiz inguratuta egoteak, bertako hiri-antolamendua mugatzen du. Aurreko galderetan aparkalekua arazo dela zenion. Eta Elgoibarren dugun espazioa mugatua da. Oreka bat topatu behar dugula uste dut kotxeen eta oinezkoen artean.

Hori esanda, oinezkoen guneak sustatzearen bide horretan ere badihardugu. Adibidez, aurreko urtean zabaldu genuen Urruzunoko parkea, herritarrentzat aisialdi eta arnagune garrantzitsua dena jada gaur egun. Bestalde, solik oinezkoen mugikortasuna hobetzeko egiten ari garen proiektuak hainbat dira herrian, Urazandiko zubiaren berroneratzea edo Artekaleko igogailua adibidez. Proiektu hauek auzoak erdigunera hurbiltzen dituzte eta gurtiz oinezkoen begira egin dira.

### **Haurrek jolasteko gune nahikoa al dago herrian?**

Nik esango nuke baietz. Auzo bakoitzean parke bat gutxienez badago, erdigunean hiruzpalau badaude eta hoietako bat estalia. Bailaran edo gure antzeko tamainadun inguruko herrietara mugitzen bagara ez dugu horrelakorik topatuko. Horri gehituko nioke parkeen egoera ere. Ingu-



rura mugitzen garenean ikusi ditzakegu parkeek duten mantentze maila eskasa. Gurean, egin beharreko konponketa puntaletatik harago, parkeen egoera ona da.

**Aisialdia eta aparkalekuak konpartitu egiten dira gune askotan. Horri irtenbidea emateko aukerarik ba al dago gure herrian?**

Berriz ere diot: oreka horren bila jo behar dugula uste dut, eta Elgoibarko espazioa mugatua izanik, oinezko eta ibilgailuen arteko harremana era egokienean egin.

**Garraio publikoa biztanleen EAEko biztanleen %15ek erabiltzen dute. Nola hobetu daiteke datu hori? Gipuzkoan, eta Elgoibarren, daukagun garraio publiko zerbitzua nahikoa iruditzen al zaizu autoa baztertzeko? (Lanerako, unibertsitaterako, medikuetara joateko...)**

Garraio publiko eskaintza ona da, baina hobetzeko ere badu noski. Datua bera hobetze aldera, argia dirudi garraio publiko sistema eta eskaintza hobetzeak datuaren hobetzea ekarriko lukeela. Baina, uste dut herritarren eguneroko ohiturek intzidentzia handia dutela datu horietan ere.

Guri dagokigunez, herri barneko zerbitzua lantzen jarraitzen dugu. Udalbusaren azterketa

*"OTA sistema egokia dugula uste dut.  
Doakoa, eta behar ezberdinei  
erantzuten diena,  
denbora tarte ezberdinak baimenduta"*

sakona egin genuen eta berau auzoetara helarazteko lanketa egina dago. Proiektua gauzatzeko finantzaketa erak lantzen ari gara, beste erakundeek ere lagun gaitzaten berau inplementatzen. Hori inplementatzean, MUGI sistemara integratzea ere aurreikusten dugu eta horretarako badugu akordioa. Bestalde, autobusa Elgoibar barruan erabiltzen duten eta hoberia duten herri arteko autobus erabiltzaileak ere gutxi batzuk izatetik 50 lagun inguru izatera pasatu izanak pozten gaitu.

Auzotaxia ere martxan jarri dugu, baserri auzoetako biztanleei kotxerik atera gabe herrira hurbiltzeko aukera ematen diena. Era horretan, landa auzoetan bizi diren elgoibartarren bizi-kalitatea hobetzeaz gain, mugikortasunari erantzunten ari gara.



Herri arteko garraioari dagokionez, bai Gipuzkoako eta bai Bizkaiko Foru Aldundiko garraio arduradunekin bildu izan gara behin baino gehiagotan. Eskaerak mahai gainean dituzte, besteak beste, unibertsitateetara joan-etorriak egiteko autobus zerbitzua hobetzeko. Egia da, baita ere, aurreratu digutela zail ikusten dutela hobekuntza horiek epe laburrean inplementatu ahal izatea.

**Altzolako bizilagunek protestan jarraitzen dute, tren geltokia kentzeko proiektua dela eta. Zein irtenbide proposatzen duzue Udaletik Altzolakoen beharrak asetzeko?**

Altzolako korta eta trenbidearen desdoblamentuaren proiektua aurkeztu zutenean eta ikusi genuenean proiektuan Altzolako tren geltokia

kentzea aurreikusten zutela, Udaletik alegazioak egin genituen, geltokia mantentzea eskatzeko.

Ulertzen ditugu baita ere Euskal Trenbide Saretik proiektua aurrera eramateko aurkezten dizkiguten argudioak; besteak beste, esaten dute trenbidearen desdoblamentuarekin maiztasuna biderkatu egingo dela Eibarrerantz eta Debarantz. Hau da, ordubetero beharrean orduerdi izango dugula trena hartzeko aukera bi norabideetan eta zerbitzu-denborak jaitsiko direla. Uste dut horrek onura garrantzitsua eskaintzen diela elgoibartarrei.

Gainera, obra horrek Altzolaraino bidegorria egitea ahalbidetuko du, eta horrek dakarren onurak ez du azalpen handirik behar.

Altzolatarrek beste elgoibartarrek dituzten aukera berberak eduki behar dituztela argi dugu, baita garraio publikoari dagokionez ere. Udalbuseko hobekuntza aipatu dut lehen. Udalbusaren hobekuntzarekin altzolararrek Euskotreneko estazioekin lotura zuzena edukitzea aurreikusten da. Bestalde, trenaz gain, gaur egun Lurraldebusko autobus zerbitzua ere badago eskura Altzolatik erdigunera, bai eta bai Debarantz joateko. Beraz, garraio publikoaren zerbitzuak bermatuta egoten jarraituko du.

*"Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek mahai gainean dituzte gure eskaerak, besteak beste unibertsitateetara joan-etorriak egiteko autobus zerbitzua hobetzeko"*



## 'Bruna' liburua argitaratu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak guberrietan ezagutu genuen Bruna, ile kizkur eta gorriak neskatoa, herriko erakusleihoen bitartez kontatu zuten ipuinean, eta orain, liburu batean jaso dituzte bere abenturak. Jasone Osorok idatzi du ipuina, eta Olatz Oñederra ilustratzaile elgoibartarrak maketatu du. Hitzek eta pentsamenduek daukaten indarra islatu nahi izan du liburuan Osorok. Ilea oso zatarrak duela esaten dio mutil batek Brunari; ardi-ilea modukoa duela eta tuntu dela, eta jendeak barre egiten dio. Brunak sinistu egiten ditu hitz horiek eta erabat aldatzen da bere buruarekiko eta bizitzarekiko daukan ikuspegia. Hasten da bere buruari hitz zatarrak esaten, hasten da bizitza eta mundua kolorerik gabe ikusten. Galdu du bere buruarengan zuen konfiantza, bai eta zuen alaitasuna ere, eta lagunekin kalean jolasten egon ordez nahiago du etxean geratu, ezkutatatu eta desagertu. "Bidaia honetan konpainiak eragin handia dauka, inguruan zer jende daukagun, nola hitz egiten digun eta zer esaten digun galdutako indar hori berreskuratzeko", azaldu du Osorok.



400 ale argitaratu dituzte, eta herriko ikasketetxean banatuko dituzte batzuk, gelaz gela. Salgai ere jarriko dute, Pitxintxun, 15 euroan. Brunaren panpina ere Pitxintxun egongo da zenbait egunetan.

### Euskaraldiarekin bat egin duten Elgoibarko entitateek agerraldi publikoa egingo dute apirilaren 7an

Elgoibarko Euskaraldia taldeak ekimenarekin bat egin duten Elgoibarko entitateen agerraldi publikoa antolatu du apirilaren 7rako, eta parte hartzera animatu ditu ariketa sozialarekin bat egiten duten Elgoibarko entitate guztiak. Helburua Euskaraldia ariketari ikusgarritasuna ematea da, eta, horrekin batera, Elgoibarko entitateek Elgoibar euskaldunagoa izateko orduan daukaten ardura azpimarratu eta balioan jarzea nahi dute.



Talde argazkia aterako dute apirilaren 7rako (astelehena) iragarri duten agerraldian, 18:30ean, Aita Agirre Kulturgunean. Gero, erretratu hori manifestu batekin lagunduta plazaratuko dute, apirilaren 11n. Parte hartu nahi duen entitate bakoitzak bina ordezkarizko izendatzea komeni da agerraldirako.

## 'Artea' antzerkia taularatuko dute gaur zortzi Herriko Antzokian



*Artea* hiru lagunen arteko komedia da. Sergiok koadro moderno bat erosi du dirutza handia ordaindu ondoren. Marcosek gorroto du koadroa, eta kosta egiten zaio sinistea Sergiori koadroa benetan gustatzen zaionik. Hirugarren laguna, Ibon, saiatuko da Marcos eta Sergioren arteko desadostasunean bitartekari izaten. Arte modernoari buruzko azaleko desadostasuna izanik, adiskidetasunari buruzko eztabaida latza bihurtzen da, Ibon erdi-erdian hartuta. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira hiru aktoreak. Gaur zortzi emango dute antzezlanaren Herriko Antzokian, apirilaren 11n, 19:00etatik aurrera. Sarrerak [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean erosi daitezke aurrez.

## Liburutegia bete zuen Eva Jurado ipuin kontalariak



Intujai taldeak antolatutako *Ahoz aho'25* ahozkotasanaren nazioarteko jaialdiaren barruan bi ipuin kontalari etorri dira aurten Elgoibarre-ra eta biek piztu dute herritarren ikusmina, bai Quico Cadaval galziarrak eta baita Eva Andujar valentziarrak ere. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian egin ohi dituzte era honetako saioak, baina ordu berean Jose Mari Esparzaren hitzaldia zegoenez han, liburutegian bertan egin zuen saioa Andujarrek joan zen astean. Ezohiko itxura hartu zuen liburutegiak, eta han batutakoek gogotik egin zuten barre. Dorleta Kortazar ipuin kontalari eskoriatzarrak ere hartu zuen parte.

## Gabarrari airetik ateratako argazkien erakusketa zabalduko dute gaur



Manu Sanchez pilotu eta argazkilaria elgoibartarrak bere bi zaletasunak uztartu, eta airetik atera zituen argazkiak Athletic-ek Kopa irabazi eta Gabarra atera zuen egunean. Egutegiak ere egin ditu bildumako 12 erretraturekin, eta orain erakusketa antolatu du. Gaur jarriko dituzte argazkiak ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gela, apirilaren 26ra arte. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.

## Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan. Gorka Mujika arituko da zuzendari lanetan, eta sei pieza interpretatuko dituzte: *Fanfare Hayabusa* (S. Yagisawa), *Oregon* (J. de Haan), *Capataz Gaditano* (C. Calado), *El señor de los anillos* (H. Shore), *Tanhäuser* (R. Wagner) eta *Tarde de abril* (A. Blanquer). 12:30etan izango da kontzertua, Herriko Antzokian. Goizean, bestalde, Elgoibarko dultzaineroek kalejira egingo dute, 10:00etatik aurrera.

## Gelatik Plazara txapelketako finala jokatu du gaur Mendaroko talde batek, Azpeitian

**G**ipuzkoako bertso-eskolen eguna ospatu zuten domekan Alegian, eta bertso-eskolaletako 150 bat ikasle batu ziren guztira. Egun osoko egitaraua antolatu zuten Bertsozale Elkarateak eta bertso-eskolek elkarlanean, eta egitarau horren barruan, goizean, Gelatik Plazara sariketan ere kantatu zuten 14 urtez azpiko bertsolariak. Finalak izan ziren Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta kanporaketak DBHkoentzat. LHkoen bi finalerako batean, lau elgoibartarrek kantatu zuten: Oihane Meabebasterretxeak, Naia Eizagirrek, Sare Rubiok eta Nora Garatek. Oiarzuarrek jantzi zuten txapela igandean

DBHkoen kanporaketetako batean, berriz, Elgoibarko eta Mendaroko talde banak parte hartu zuten, Erreterriako eta Hernaniko talde banarekin eta Oiarzuingo hiru talderekin batera. Martin Serrano, June Langara, Unax Arzamendi eta Mikel Zubiaurrek osatzen dute berez Elgoibarko DBHkoen taldea, baina



atzo hiru laguneko taldeak kantatu zuen, Zubiaurre falta zelako. Mendaroko taldea, berriz, Lizar Ezenarrok, Axular Larrañagak eta Luken Zulaikak osatu zuten, eta haiena izan zen finalerako sailkatu zen taldeetako bat (Erreterriako taldea izan zen kanporaketa horretan sailkatu zen beste taldea). Gaur jokatu du finala, Azpeitian, Orereta, Azpeitia, Azkoitia, Alegia, Zumaia eta Mendaroko taldeek.

### Santanetarako kartel lehiaketa antolatu dute Mendaron



Santa Ana jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Mendaron errotatutakoek hartu dezakete parte, eta partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. A3 tamainan aurkeztu beharko dira lanak, bakoitzak nahi duen teknika erabilita, baina ezinbestean azaldu beharko da ondorengo testua: 'Mendaro Santana Jaiak 2025. Uztailak 19, 20, 24, 25, 26 eta 27'. Lana itxiz gutunazal batean aurkeztu beharko da ezizen batekin, Mendaroko Udalean, maiatzaren 30erako. Informazio gehigarroa: [mendaro.eus](http://mendaro.eus).

### Egur Arte tailerrak udako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du

Egur Arte Tailerrak margo ikastaroak antolatu ditu udarako, HH4tik DBH2ra artekoentzat. Bost astez emango ditu eskolak, ekainaren 23tik uztailaren 24ra bitartean. Eskolak goizez izango dira, astelehenetik barikura, 09:30etik 12:30era, eta besteak beste sormena landuko dute, jolasen, margoaren eta aire libreko ekintzen bidez.

Izen-emateak asteka egin daitezke. Aste bakoitzeko prezioa 38 eurokoa izango da, eta %10eko deskontua izango dute bi aste edo gehiago aukeratzeko dituztenek, bai eta bigarren seme-alaba apuntatzen dutenek ere. Apirilaren 25era arteko epea dago izena emateko 666 557 538 telefonoan edo [egurarte@gmail.com](mailto:egurarte@gmail.com) helbidera idatzita.



## Euskadiko Koparako puntuagarria izango da bihar, hilak 5, jokatuko duten Kilimon Trail proba



**K**ilimon Trail mendiko lasterketa jokatuko dute bihar Mendaron. 16:00etan abiatuko dira lasterketa motzekoak eta bost minutu geroago luzekoak. Hamahirugarren edizioa izango da aurtengoa, eta Euskal Herriko Koparako proba puntuagarria izango da. Berehala bete ziren antolatzaileek lasterketa motzerako -11 kilometrokoa- jarri zituzten 200 plazak eta 23 kilometroko lasterketarako jarria zuten partaideen muga -250 lagun- ere arin

bete zen eta itxaron zerrendan dago jendea. Herriko proban parte hartzen duen mendarorren kopuruak ere gora egin du azken urteetan eta 24 izango dira aurten. Elgoibartik 35 daude izena emanda. Mendaroko Txirindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen dute lasterketa, Mendaroko Udalaren laguntzarekin. Gontzal Murgoitio elorriorra eta Ainara Urrutia aretxabaletarra gailendu ziren iazkoan. 🏆 Iosu Juaristi

---

### Padel kantzaren eta frontoiaren erreserbak egiteko sistema berria, Mendaron

Padel kantzaren eta frontoiaren erreserbak Udalaren web orriaren bitartez egin beharko dira Mendaron apirilaren 14tik aurrera. Horretarako, bi ekipamenduen kontrolerako zerraila elektronikoak instalatuko ditu Udalak, eta zerraila hauekin integratutako software aplikazio bat ere bai Udalaren web orrian, erreserbak eta ordainketak egiteko. Modu honetan, bi instalazio horietakoren bat erabiltzeko ordua hartzen duenean, herritarrak kode bat jasoko du sakelako telefonoan, erreserbatuta daukan denbora tartean dagokion instalazioko atea ireki ahal izateko. Kode horrekin atea zabaltzeko, lehenbizi, *JustIn Mobile* aplikazioa instalatu beharko da norbere mugikorrean, azken finean, giltza birtual baten antze-

koa litzatekeena. Telefonoarekin atea zabaltzeko Bluetooth-a aktibatuta izan beharko da. Apirilaren 9tik 13ra padel pista eta frontoiko aldagelak itxita egongo dira zerraila berriak instalatu eta sistema berria martxan jartzeko lanak direla eta. Sakelako telefonorik ez dutenek, udaletxeko sarreran jarritako eguneratze aparailu baten bidez eguneratu ahal izango den txartel bat lortzeko modua izango dute, bi instalazioetako atea irekitzeko. Mendaroko Gimnasioa arduratuko da kudeaketa guztiaz.

*Mendarobirtuala.eus* web orrian edo Udalera bertaratuta ezagutu ahal izango ditu hala nahi duenak sistema berriaren inguruko zehaztapen guztiak.

## Jose Gurrutxaga krosa, herri bazkari eta guzti



Egun osoko egitarauarekin dator aurten Jose Gurrutxaga kirol proba. Elgoibar Ikastolak urtean zehar kalean antolatzen dituen ekimenak bereziak izaten ari dira aurten, urriari Kilometroak jaia izango dela-eta. Ukitu berezia eduki zuten santa eskeak, Euskal Inauteriek edota Pilota Egunak, eta soka bereetik, Jose Gurrutxaga krosaren 30. edizioa izango dena ere ohi baino jantziagoa dator, kirola, festa eta elkartasuna uztartuko dituela aurreratu baitute Ikastolatik. Domekan izango da herriko kaleetan barrena egiten den kros jendetsua, eta 09:30etik 10:20ak bitartean kamisetak eta dortsalak eskuratzeko aukera izango dute ize-

na emanda dauden LH1etik gorako partaideek. Aurten, estreinakoz, Haur Hezkuntzako ikasleek ere egingo dute antxixika, 10:00etatik aurrera. Horren ostean hasiko dira urteroko ohiko lasterketak, adinaren arabera banatuta, 10:30etik aurrera. 695 lagun daude izena emanda, horietatik ehun 16 urtetik gorako lasterketarako. Ume txikienezko txoko edo jolasgune bat ere prestatu dute, 0-5 urte bitarteko umeentzako, hain zuzen. 10:30etik 13:30era egongo da erabilgarri Bolatokiko parkean. Estreinakoz herri bazkaria antolatu dute, eta 250 lagunek parte hartuko dute. Elizpean izango da bazkaria, 14:30etik aurrera.

### Zabalik dago Mendaroko frontenis txapelketan izena emateko epea

Binakako Frontenis Txapelketa antolatu du bigarrenkoz Mendaroko Gazte Asanbladak, eta bada berrikuntza nagusi bat, 2010 eta 2013 urteen artean jaiotako nerabeentzako liga ere martxan jarri nahi baitute aurtengoan. Gizonezkoen zein emakumezkoen parte hartzeko 16 urtetik gora eduki behar dira. Horiek 20 euro ordaindu beharko dituzte bikoteko izena ematekoan. QR kodearen bidez apuntatzeko aukera egongo da edo jubilatuen tabernan egongo den papera beteta bestela. Apirilaren 13an bukatuko da izena emateko epea, maiatzetik aurrera jokatuko baitute txapelketa. Nerabeentzat doakoa izango da izen ematea.

Partida gehienak asteazken eta ostegun arratsaldeetan jokatuko dituzte, Goñati frontoian, 18:00etatik aurrera. Finala uztailaren 23an izango da. Iazko txapelketan hemezortzi



bikote lehiatu ziren gizonezkoetan eta Axular Agirregabiria eta Ander Aberasturik irabazi zuten finala, Unai Mendikute eta Joseba Mantearen kontra. Zortzi bikote lehiatu ziren emakumezkoetan eta Ane Landa mendarorarrak eta Miren Gisasola eibartarrak osatutako bikotea gailendu zen.

## Itxaropenari eusteko garaipenak lortu dituzte Haundi taldeek

**M**ailari eusteko borrokan urrearen balioa duten hiru puntu eskuratu dituzte Haundi taldeek; gizonetakoek etxetik kanpo eta emakumezkoek, Mintxetan. Bederatzi partida zeramatzan gizonetako taldeak partidarik irabazi gabe, eta hamargarrengoa iritsi zen garaipena, Aloña-Mendiri Oñatin 0-2 irabazita. Garaipen honenkin aurrea hartu diete oñatiarrei sailkapenean. Azken hiru sailkatuek galduko dute maila, eta azken hirugarren postuan dago orain Haundi, 26 punturekin. 24 puntu ditu Aloña Mendik eta 19 puntu Vasconiak. Gorantz begira jarrita, Haundik baino hiru puntu gehiago dituzte Hernanik (29 puntu) eta Beti Gaztek (29 puntu). Hain justu ere, Haundik Lesakako Beti Gazteren aurka jokatu du bihar Mintxetan, 16:30ean.

Emakumezkoen taldeak ere garaipen handia lortu zuen domekan Mintxetan, Irauli Bostekori 3-2 irabazita. Hamabi jardunaldi zeramatzaten partidarik irabazi gabe, abenduaren 14an Beti Gazteri irabaziz geroztik. Orain azken hirugarren postuan daude 20 punturekin. Beti Gazte da azkenurrekoa, 20 punturekin eta Ondarbeltz Amaiak Mutriku taldea dago azken postuan, mailari eusteko aukerarik gabe, 4 punturekin. Elgoibartarrek puntu batera dute jaitsiera postuetatik kanpo dagoen lehen taldea, Irauli Bosteko, eta euren baino bi puntu gehiago dituz Hernanik. Azken bost jardunaldiak finalak modukoak izango dira eta Bergaran jokatuko dute aurrenekoa, bihar (12:00etan). Hurrengo jardunaldietan mailari eusteko borrokan dabilzan Beti Gazte eta Hernani izango dituzte aurkari.

### Haizeak kalteak eragin ditu zenbait kirol instalaziotan



Azken boladako haizeteek kalteak sortu dituzte Elgoibarko zenbait kirol azpiegituretan. Esaterako, IMHko tenis pistako alde bateko hesitura guztia bota zuen haizeak. Konpontzera etortzeko aginduta dutela jakinarazi dute Udal Kirol Patronatutik. Mintxetako futbol 7ko bi porteria, harmailetako teilatuko plaka bat eta spinning gelako aurrealdean ere kalteak eragin zituen haizeak, eta ari dira horiek konpontzeko lanetan.





**Mikel Leon**  
*inmomikel@gmail.com*

**747 459 343**  
 San Ignazio kalea 1,  
 20870 Elgoibar

 @mikel\_inmobiliaria

Mikel  
INMOBILIARIA

WEBGUNE BERRIA! Bisita gaitzazu! [www.inmobiliariamikel.com](http://www.inmobiliariamikel.com)




















**LANA**

**Eskaerak**

Gaixoak eta adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. **602 834 107**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **642 249 854**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan, gauetz... **641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gauetan... Ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. Esperientzia handia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **641 692 366**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut eta etxeko langile moduan jarduteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. **649 044 223**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat, eta erreferentzia onak. **638 857 100**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, gauetan, baserrian... **642 852 854**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Titulu soziosanitarioa daukat eta urte askotako esperientzia. **660 511 781 / 943 742 330**

**PARTIKULARRAK**


DBH2ko ikasle bati euskarazko eskola partikularrak emateko pertsona behar dugu. Gainerako ikasgaietan etxeko lanak egiten laguntzea ere eskertuko genuke. **602 112 257**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Estatutuek debekatu dezakete animaliak edukitzea?</b></p> <p>Jabe orok ditu bakoitzaren etxeari dagozkion eskubide berezi eta esklusiboak. Beraz, norbere etxeko mugen baitan nahi dituen ekintzak egin ditzake, baldin eta gainontzeko bizilagunen interes komuneko eskubideak urratzen ez baditu. Etxeko animalia baten jabeak bere animaliaz gozatzeko eskubidea du eta legeak ezarritako mugak baino ez ditu bete behar. Beti ere legedia zentzuz bete eta etxeko bizigarritasunean zein elkarbizitza bake-tsuan eragiten ez badu. Irizpide hauen harira eztabaidagarria da eraikineko elementu pribatuetan etxeko animaliak edukitzeari buruz estatutuetan debekuak egotea. Izan ere, horrelako debekuak jabetza pribatuetan muturra sartzea lirateke. Bestalde, eraikinaren elementu edo instalazio komunen zein bizilagunen komunitatearen adostasun edo erabakien bidez ezarritako barne araudi batek ezingo luke oztopatu animaliak edukitzea.</p> <p><b>Ondorioak: kasu zehatz bakoitza aztertuz gero, etxebizitza zein animaliaaren gozamenak izan ditzake mugak. Horieta bantzuk honakoak dira: etengabe edo orokorrean trabak sortzea, animalien jabetzak araudiak ezarritako arriskuak eragitea edo bizilagunei kalte egitea utzikeria zein osasunaren kalterako baldintzek.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Irati**, gaur 2 urte bete dituzelako! Pila bat maite zaitugu.




Zorionak, **Eneko**! Domekan 11 urte handi! Jarraitu horrela! Muxu handi bat, etxeko denon partez.



Zorionak, **Elaia**! Gaur 8 urte! On-do-ondo pasa eguna! Patxo handi bat.



Zorionak, **Izaro**, asteartean 10 urte handi bete zenituelako! Ederki ospatu genuen! Muxu handi bat, etxekoan partez.



Konturatzerako 6 urte beteko ditu etxeko txikiak. Zorionak, **Lur**, igandean urteguna duzulako. Muxu handi bat etxekoan eta lagunen partez.



Zorionak, **Sara**, astelehenean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Laiaren partez.



Zorionak, **bioi**, 8 eta 5 urte handi betetzen dituzuelako. Muxu handi bana, etxekoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## KONTSULTATEGIA

### *Hortzak zaharberritzearen onurak*

#### Hortzetako funtzioa berreskuratzea

Hortzen zaharberritzeek, enpasteek, koroek, inlayek edo onlayek kaltetutako hortz baten funtzioa berreskuratzea ahalbidetzen dute. Horrek egunero-ko jardueretara eragozpenik eta minik gabe itzultzea ahalbidetzen du.

#### Hobekuntza estetikoa

Zaharberritze modemoak hortz naturalen itxurarekin parekatzeko diseinatu dira. Horri esker, kaltetutako hortz bat konpontzeaz gain, zure iriba-rearen estetika ere hobetu ahal izango duzu.

#### Babesa eta prebentzioa

Kaltetutako hortza edo txantxarra duen hortza infekzio edo konplikazio larriagoen fokua bihurtu daiteke. Zaharberritzeek hortza zigitatu eta babesten dute, txantxarrak aurrera egitea saihestuz eta etorkizuneko mehatxuetatik babestuz.

#### Iraunkortasuna eta eraginkortasuna

Egungo zaharberritzeak iraunkorak izaten dira, hortzen konponbiderako erabiltzen diren material eta teknikei esker zaharberritzeak urte luzez iraun dezakete.



**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)  
**943 366 377**

## 4 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: Manu Sanchezek Gabarrari airetik ateratako argazkien erakusketa. Astelehenetik zapatara, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 26ra arte egongo da ikusgai. Orduetgia: 18:30-20:30

**19:00** 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Lilan. Loredi Salegik gidatuko du saioa.

## 5 ZAPATUA

**16:00** Kilimon Trail mendi lasterketa. Mendaroen. Herriko Enparantzatik.

## 6 DOMEKA

**10:00** Dultzaineroen diana Elgoibarren.

**10:00** Bigarren eskuko azoka. Mendaroen, frontoian.

**10:30** Jose Gurrutxaga krosa. Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *Fanfare Hayabusa*. (S. Yagisawa).
2. *Oregon*. (J. de Haan)
3. *Capataz Gaditano*. (C. Calado).
4. *El señor de los anillos*. (H. Shore).
5. *Tnhäuser*. Coro de Peregrinos). (R. Wagner).
6. *Tarde de abril*. (A. Blanquer).

## 8 MARTITZENA

**10:00** Tailerra: Elikadura kontzientea. Jubilatuen Biltokian. Gurutze Gorriarekin elkarlanean antolatuta.

**16:00** Zaintzako eta etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua, Merlin Medinarekin, Lilan. Txanda hartzeko: 688 640 983 / [elgoibarzaintza@gmail.com](mailto:elgoibarzaintza@gmail.com)

## 9 EGUAZTENA

**18:30** Ekain Ibareguren pailazoarekin solasaldia. In Leikek antolatuta, Mendaroko Udalaren laguntzarekin. Udaletxean.

**10:00** Tailerra: Elikadura kontzientea. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Gurutze Gorriarekin elkarlanean antolatuta.

## 10 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskolaren topaketa. Jose Cruz Igartuarekin, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.

## 11 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Artea'. Txalo Produksioak taldearen eskutik, Herriko Antzokian.



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



**Zinea** Herriko Antzokian



**'Lee Miller'**

4 barikua: 19:00  
 5 zapatua: 19:00 / 22:15  
 6 domeka: 19:00  
 7 astelehena: 21:00

**'Los exploradores'**

6 domeka: 16:30

**'Becoming Led Zeppelin'  
 (Ongarri zinekluba)**

9 eguaztena: 21:00

**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**APIRILA**

4 BARIKUA	■ Soto
5 ZAPATUA	Garitaonandia
6 DOMEKA	Garitaonandia
7 ASTELEHENA	Arriola
8 MARTITZENA	■ Fernandez
9 EGUAZTENA	Yudego
10 EGUENA	■ Oruesagasti
11 BARIKUA	Barrenetxea

**2025 urte guztian, gauzez:**

**Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)**  
 943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		



**Nicolas Arambarri Larrañaga**

2025eko martxoaren 28an hil zen, 74 urte zituela.  
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



**Nicolas Arambarri Larrañaga**

2025eko martxoaren 28an hil zen, 74 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,  
 baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**

Herri-gain elkarte





Andoni Segundo

## Giza Eskubideen parkeko haginak

*Taxus baccata*

**B**ehin baino gehiagotan galdetu didate ea Giza Eskubideen Parkean dauden zuhaitzak toxikoak eta arriskutsuak diren pertsonentzat, batez ere haurrentzat.

Hagina konifero bat da, baina oso desberdina. Ez du pinabururik sortzen, baiak diruditen fruitu gorri eta mamitsuak baizik. Bere atal guztiak, hazia estaltzen duen fruituaren mami gorria (ariloa) izan ezik, pozoitsuak dira, alkaloide toxikoak baitituzte. Horregatik, "*heriotzaren zuhaitza*" deitu izan zaio. Hala ere, 1.500 urte arte bizi daiteke eta bere azaletik taxola ateratzen da, minbiziaren tratamenduan erabiltzen den botika bat den alkaloidea; beraz, "*bizitzaren zuhaitza*" ere deitzen zaio.

Ale batzuek lore maskulinoak dituzte, eta beste batzuek femeninoak, fruitua ematen dutenak. Parkekoak maskulinoak dira, fruiturik eta hazirik gabeak, eta horiek dira toxikoenak.

Bere izena grekotik dator, *toxon* (arkua) edo *toxikon* (pozoia).


Zuhaitz sakratua izan da herri batzuentzat, zeltiarrentzat edo asturesentzat adibidez, eta beti egon da kondairez inguratuta. Bere propietate toxikoak antzinako greziarrek aipatzen dituzte, hala nola Teofastrok edo Galenok. Julio Zesarrek bere *Galien Gerra* liburuan kontatzen du buruzagi eta gerlari batzuk beren buruaz beste egin zutela hagin pozoiarekin konkistatuak izan aurretik. Ezaguna da, baita ere, Mons Medullios-eko kantabriarren suizidioaren kondaira, erromatarren esklabo ez izateko.

Euskal Herrian ere nortasunaren ikurra izan da. Gipuzkoako armarriak, adibidez, hiru hagin ditu hiru itsas olaturen gainean. Euskal mitologian kontakizun askotan agertzen da. Arno mendiko leize baten ondoan dagoen hagin baten gainean apustua egiten duten Mutrikuko marinel batzuen istorioa kontatzen du Barandiaranek. Beste istorio polit batetik soldadu karlista baten ihesa kontatzen du, isabeldar tropak atzetik dituela, Aralarko hagin batzuk ondoan dituen putzu baten inguruan.

Bere egurra Neolitotik erabili izan da. 1991n, Ötzi izeneko momia izoztua aurkitu zuten Alpeetan, izotz-gizona, 5.000 urte zituen, hagin zurezko aizkora bat eta arku bat zeramatzana.

Gaur egun, Pagoetako (Aia), Zeanuriko, Antoñanako eta Izarrako haginak Euskadiko zuhaitz berezizat daude izendatuta. Beraz, babestutako espeziea eta gure ondarearen zati izanik, zaindu beharko genuke ondo heriotza eta bizitzaren arteko espezie hau.





- ➔ **Pro ohe-zorroa:** Zorro honekin ohe fresko eta garbi bat mantentzea erraza da bere irekitzeko modu errazagatik, makina bidez garbitu baitaiteke.
- ➔ **TEMPUR Advanced materiala:** Material honek norberaren presioa %20 gehiago arintzen du, mugimenduk moteltzen ditu eta inoiz baino hobeto egokitzen da gure gorputzera. Modu honetan gure deskantsua erabatekoa izatea lortzen du.
- ➔ **Tempur Adapt Material:** Gorputzari egokitzeko, presioa arintzeko eta mugimendua xurgatzeko teknologia sinestezina are erresistenteagoa eta iraunkorragoa da orain.
- ➔ **Tempur DuraBase teknologia:** Goiko geruzekin batera lan eginez, geruza honi esker, teknologiek erosotasuna eta euskarria optimizatu dezakete.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## IKUSI MUGARIK GABE ESTREINATU LENTILLAK EGUNERO

## DEBALDE ETA KONPROMISORIK GABE ESKATU ORAIN!

EDOZEIN ADIN ETA  
EDOZEIN GRADUAZIO

BAITA  
PROGRESIBOAK ERE



HIDRATAZIOA, EROSOTASUNA ETA ARGITASUNA

\*Bare hartzen dituz hilean 2 lentilla blister (1 begi bakoitzeko) edo 10 lentilla blister egunean (5 begi bakoitzeko). Eskaintzak urte osoko bako du (Espaniako eta Andorako ALAIN AFFLELOU optika guztietan. Kontsultatu baldintzak optikan eta [afflelou.es-en](http://afflelou.es-en). 1/25 enregistro-zenbakia.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10  
ELGOIBAR · 943 74 37 34**

**ALAINAFFLELOU**

Eskatu txanda  
[afflelou.es](http://afflelou.es)



Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
**943 740 359**  
Deba  
**943 192 192**

**leku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
**943 531 953**  
**669 565 745**

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
  
Trenbide kalea, 13  
**943 740 191 / 667 953 698**  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)  
RPS 177/12

**NATUR HOUSE**  
**Ainara Iriondo Ansoa**  
GIZA ELUKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
RPS 203/16  
Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
**677 551 850**



# GREEN MISSION GIDA



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**LEIHOAK**

**ODR**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak  
Abeak, leihoak, pertsiolak, barsandilak,  
eltxo-sareak eta toloak jartzen ditugu.

**662 234 609**

odr@leihoak@gmail.com  
Sagar Erreka Kalea 2, 20900 SORALUZE

**AROZTEGIA**

**BIENA, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**

Pedro Migel Urruzuno, 8  
**943 740 512**  
fax: 943 743 565  
blenda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**

**IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK**

**PLAGANATURA**

Osakidea eta Salubritatearen Departamentua

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eus  
www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**  
aroztegia - altzaririk - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendaro

**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana  
**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.**

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com

**KONPONKETAK**

**LODOSO KONPONKETAK**

- Leihoak
- Pertsiolak
- Arozteria metalikoa
- PVC arozteria
- Eltxo-sareak

Errosario kalea, 13, behea  
lodosokonponketak@gmail.com

**943 247 659**  
**617 585 330**

**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com

@carpinteria\_imar

**Gidan agertzearen onurak!**

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

**23,82€**  
hilan

**12**  
aldiz urtean

**4.700**  
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.